

## **EZ ABOLIZIORIK EZTA ARAUTZERIK ERE Sexu langileen eskubideengatik**

**Cristina Garaizabal  
Bilbo. 2.010eko martxoa**

Gurea bezalako gizarte patriarkaletan, nahiz eta sexualitatearen alorrean aurrerapenak izan diren, emakumezkoak, gizonetzkoak baino neurri haundiagoan, gure sexu portaeraren arabera epaitzen gaituzte

Aipaturiko egoeraren adierazpen garbiena gizarteak orokorrean sexu langileez egiten duen balorazioa da. Emakume sektore honek estigmatizatua izaten jarraitzen du, beste emakumeekiko desberdina den emakume kategoriatzat jotzen dituztelako. Ideologia patriarkalak emakume talde honen eta besteen arteko muga zorrotza ezartzen du. Sexu langileak, "puta" bilakatuta, nagusi den ideologiarentzat emakume "zintzo" batentzat duina ez dena irudikatzen dute eta hori dela eta, erasotu, polizialki jazarri, komunikabideetan espresio txarrenetan erakutsi (Bartzelonako Boqueria azokako argazkiak) edo egoera horretatik askatzeko, nahi dutena hori den ala ez galdetu gabe, biktimizatu egiten dituzte.

Sexu langileen estigmatizazioa, egun oraindik sexualitate femeninoa zedarritzen duten mugei eusteko, kontrol instrumentu bat da. Nagusi den ideologiak sexu-atseginak emakumezkoentzat duen arriskua nabarmentzen du. Emakume "zuzenak" izan behar dugu babesturik sentitzeko. Emakume "okerra" izanez gero, logikoa da erasotua izatea, edozer gauza gertatu ahal izatea. Emakume zuzenek eskubideak dituzte eta babestu egiten ditugu, baina okerrak, berdinez izaten jarraitu nahi badute, babesik gabe geratzen dira eta eskubide guztiak galtzen dituzte.

Hau da sexu langile den eta izaten jarraitu nahi duen eta dituzten eskubide eta lan baldintza hobekien eskatzen duen orori gertatzen zaiona. Izan ere, eta eztabaida ideologikotik eta estigmaren dimentsio sinbologikotik haratago, errealitatean emakume talde hau bereziki dago diskriminatua.

Prostitutak, hiritarrak diren heinean, eskubideak dituzten sujetuak dira eta euren jarduerak ez luke zertan eragin behar, inola ere, dagozkien giza eta hiritar eskubideengan: Askatasuna eta segurtasun pertsonala, intimitatearen errespetua, hirugarren pertsonekin itun komertzialak izateko eskubidea, emigratzeko aukera, Genero Indarkeriaren Legearen babespean egotea....

### **Azken urteetako egoera**

Azken urteetan sexu langileen egoera nabarmen joan da okerrera. Sexu langile etorkinen hazkundea aitzakia bikaina izan da planteamendu abolizionisten garapenerako. Gehienetan era irregularrean etortzea, paper falta eta hemego euren bizi baldintzek, baliabide ekonomiko gutxien dituzten etorkinen aurkako gehiegikeriak handitzea ekarri du. Egoera hau **prostituzioa**

**genero indarkeria moduan definitzeko** aitzakia izan da. Honela prostituzioaren oinarritzko izatea, hots diru truke zerbitzu sexualak elkartrukatzea, jardun honetan aritzeak dakartzan baldintzetatik deribaturiko beste edozein fenomeno konkomitanterekin: gehiegikeriak, biolentzia, bazterkeria, estigma etab luze batekin nahastea lortuaz.

Emigratzen duten emakumeak txiroak izateak, berauek murruterraino biktimizatzea dakar, datozen guztiak salerosketaren biktimak direla eta prostituzioan lanean jarraitu nahi dutenen kopurua, kontutan hartu behar ez dena dela baieztatuaz.

Errealitatearen perbertsio eta manipulazio honek, salerosketa prostituzio boluntarioarekin parekatzen du, eta honela, batez ere emakumezko eta neska txikien esklabutza egoera ezkututzen du; esklabutza errejimenean prostituzioan aritzea behartuta eta bahituta daude mafien menpe; dokumentaziorik gabe, herri honetara bidaiatzeko eman zitzaizen prestamoa interes oso haundiek itzultzea behartuta, euren lan baldintzen inguruko erabakirik hartzeko aukerarik gabe, eta prostituizoa uzteko eskubiderik gabe ezta egoera okerragoan lan egiteko bada ere. Emakume sektore hau existitu egiten da eta esklabu eta mafiaren jabetzatat jo ditzakegu. Eta egoera horien aurrean hartu beharreko neurriek ez dute zerikusirik prostituzioaren lan baldintzak duintzeko garatu beharreko politikekin eta ezta gehiengoa diren boluntarioki aritzen diren prostituten segurtasuna handitzearekin ere.

Egia da, dena den, euren borondarearen aurka prostituzioan aritzen diren emakume kopurua txikia izateak ez diola larritasunik kentzen egoera horri eta ez dituztela bermatuta ezta euren eskubideak ere. Prostituzioa helburu duen emakumeen salerosketa, giza eskubideen bortxaketa larria da eta suntsitu behar den genero indarkeriaren muturreko forma. Horretarako baina, ez dira nahikoak aldarrikapen orokorrak eta gutxiago prostituzioaren bezeroak jazartzea, beraiek izango bailiran libreki itundutako zerbitzu sexualak eskatu beharrean esklabu sexualak eskatzen dituztenak.

2.007ko apirilean ezagutarazitako Diputatuen Kongresuko Batzorde Mixtoko Emakumeen Eskubideen Ondorioek politika instituzionaletan prostituzioaz jarduteko egoera berri bat ireki zuten. Ondorio hauek, ia proposamen zehatzak planteatzen ez diren guztiz ideologizatuta dauden abstraktikizoen laburpena dira. Hauetan, nahiz eta prostituzioaren errealitatearen ikerketa fidagarririk ez dagoela onartzen den, prostituzioan boluntarioki aritzen diren emakumeen kopurua oso txikia denaren ustean oinarritzen dira, "ez duela zentzurik desberdintzea prostituzio derrigortua boluntariotik" ondorioztatzen, beraz derrigortutako prostituzioaz soilik hitz egiten da eta prostituzioan boluntarioki aritzen diren pertsona guztiak ezkutatuaz, ikuspuntu legegiletik eskubideak dituzten sujetu moduan alde batera utziaz.

Prostituzio guztia derrigortua denaren aurriritzian oinarritzeak sexu merkatu klandestinoari mesede egin, balioa eman eta merkatu hori handitzea dakartzan lege eta neurriak ezartzea dakar, langile hauen kalterako euren ahultasuna handitu egiten baita. Hori dio 2.000 urteko Europako Parlamentuko informe batek: "kide diren Estatu gehienetan indarrean dagoen prostituzioaren

debeku direkto eta indirektoaren erregimenak delinkuentzia antolatutako monopolizatutako ezkutuko merkatu bat sortzen du, bertan inplikaturako pertsonak, batez ere etorkinak, indarkeria eta marjinalitate bultzatuz”

Zoritxarrez, ia prostituzio guztia behartua denaren ideia, hainbat aldiz errepikatua izan denez, asko hedatu da eta inolako hausnarketarik gabe erabiltzen da. Hori dela eta, askotan Salerosketa eta prostituzioa errealitate berbera bailiran erabiltzen dira.

### **Lana edo esklabutza**

Maiz, prostituzioaz ari garenean “lana vs esklabutza” dikotomia ezartzen da, kontzeptu baztertzailak bailiran. Gure ikuspuntutik binomio hau ez da baztertzaila. Zerbitzu sexualak eskaintzea, kasu batzuetan soilik (gutxi, baina onartezinak) ia esklabutza erregimenenean egiten da. Salerosketa biktima diren emakumeen kasua da hau eta Nazio Batuek gomendatzen duten moduan, estatu politiken ardatz izan behar dute lehen tokian euren babes, laguntza eta egin zaien mina konpontzea.

Salerosketaz dihardugunean sortzen den lehendabiziko arazoa etorkinen trafiko ilegala eta salerosketa bera desberdintzea da. Praktikan oso desberdinketa garrantzitsua dena, izan ere, salerosketa giza eskubideen bortxaketa da (indarkeria eta pertsonaren bereraren bizitzaren inguruko erabakiak hartzeko gaitasuna ezeztatzeaz gain, behartzen du esklabutza erregimenenean lan egitea), eta trafiko ilegalean aritzen denak berak erabakitzen du eta askotan gure herrian sartu nahi duten eta Atzerritar Legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen ez dituzten etorkinentzat gerta daitekeen gaitzik txikiena.

2.008ko abenduan Gobernuak Esplotazio Sexuala helburu duen gizakien Salerosketaren aurkako Plan Integrala onartu zuen. Beharrezkoa eta hainbat neurri positibo aurrikusten dituen: estamentu judizial eta polizialen nazioarteko koordinazioa, organizazio mafiosoen ondasunen konfiskazioa, eta honekin biktimentzat izango den fondo bat eratzea, biktimen mafiosoak salatu nahi dituzten ala ez erabakitzeko epea luzatzea, biktimen informazio neurriak, hartapen zerbitzuak, asistentzia juridikoa eta babes integrala (nahiz eta hasera batean hau soilik salaketa jarri dutenentzat izan), biktimen berehalako artapenerako mekanismo legalak perfektionatzeko neurri legislatiboak eta prozedurak, hauen artean daude biktimen epaiketa aurretik deklaratu ahal izatea, eta beraz, epaiketan bertan mafiosoekin egotea ekiditea,...

Dena den, plan honek izan dezakeen eraginkortasunaz zalantza eragiten diguten hutsune eta unilateralitate ugari ditu:

- Planaren sarreran salerosketa eta etorkinen trafiko ilegalaren arteko desberdinketa egiten da, baina hau ezerezean geratzen da proposatzen diren neurrietan ez baitago hauek desberdintzen dituen adierazlerik. Aitzitik, neurri gehienak polizia zerbitzu eta judizialek zuzenduta daude, eta batez ere, salerosketaren jatorri izan daitezkeen herrien mugetako kontrola indartzea. Honek ez du laguntzen salerosketa eta trafikoaren arteko desberdinketa egiten.

EBtik datozen biktimak babesik gabe uzten ditu eta orokorrean etorkinen eta bereziki emakumeen eskubideak murrizt ditzake.

- Salerosketa eta prostituzioa berdintzea. Asimilazio hau Plan guztian zehar dago eta batez ere sentsibilizazio neurrietan nabaritzen da: iragarkien kontrola, gizartea prostituzioa emakumearen oinarritzko eskubideen bortxaketa dela sentsibilizatzea eta turismo sexuala eragozte.

- Esplotazio sexuala helburu duen salerosketarako plan berezia: Salerosketa mota desberdinen biktima izan diren pertsonen diskriminazio eta laguntza eza: etxeko lanetan, soroetan, eskaletasunean, eraikuntzan, derrigortutako ezkontzetan,...esplotazioa jasan duten pertsonak.

- Larriena: ez dauka bere arduren zentroan biktimen giza eskubideen defentsa. Honetaz sarreran dihardu, baina azaltzen dituen neurriak ez datoz egindako adierazpenarekin bat. Plan honek eskaintzen dituen baliabideak erabiltzeko, salaketa jarri eta sare kriminalak desegiten polizia laguntzen duten salerosketa biktimek dute soilik aukera. Halaber, neurri gehienak mugen kontrola indartzea zuzenduta edo Salerosketaren jatorri direla kontsideratzen diren herrialdekoei bisa eskatzea zuzenduta daude.

Laburbilduz, Plan honen funtzioa prostituzioa eragozte dela dirudi, XXI. mende betean, sare kriminalek iruzurra eta indarkeria medio esklabutza errejimenean lan egitea behartuta dauden pertsonak defendatu beharrean.

## **Sexu langileek erabakitze duten gaitasunaren ukapena**

Azken urteetako kontu kezkarrienetakoa lan sexuarekin aritzea aukeratu eta jardun honetan aritzeko baldintzak hobetu nahi duten prostituta taldea (gure ikerketa eta hiri desberdinetan egindako beste ikerketa partzialen arabera sektorean gehiengoaren direnak) ezkutatu utzi nahi izatea da. Gobernutik, Udaletxeetatik, komunikabide gehienetatik, alderdi politikoetako ahots nagusiek, eta feminismoaren zati batetik ahalgin handiak egin dituzte sexu langileen gehiengo hau ezkutatzeko.

Egoera honen aurrean, zenbaki gerran sartzea beharrezkoa da, zaila, hala ere, argumentu absolutu moduan erabiltzeko, ez baitago fidagarri izan daitekeen ikerketarik prostituzioa bere osotasunean hartzen duenik, argumentu hauek sendoak izan daitezkeen. Bakoitzak bere zifrak ematen ditu, eta gainera insituzioetatik ez dira sentitzen behartuta euren esaten dutena eusten duena egiaztatzen. Beraz, utzi une batez hortan aritzea:

Diotenez, prostituten %90 edo %95a mafiek behartuta aritzen da. Kopuru hau, %90a etorkina eta hauetatik gehiengoaren dokumentazioa eguneratu gabea den polizia txostenetatik ateratzen dute. Sexu langile etorkinen kopuru hau benetazkoa izan daiteke, baina partziala, izan ere, funtsean bezeroak kalean ala errepideko klubetan dituzten prostitutez ari da.

Sexu langileen %90a etorkina izateak ez du esan nahi prostituzioan derrigortuta ari direnik. Gehiengoak, gure datuen arabera, oso argi dauka

zertara datorren, nahiz eta euren lana zein baldintzetan egingo duten oso argi ez izan. Prostituzioan lan egitea erabakitzen dute errentagarriagoa zaielako eta gainera askatasun haundiagoa ematen dielako eta euren lan baldintzak hobetu nahi dituzte. Gutxiengoa da engainatuta datorrena eta Salerosketa biktima kontsidera daitekeena.

Lehenago esan dudan moduan, kopuruak ezin dira izan argumentu absoluto bat prostituzioan jarraitu nahi duten emakumeen eskubideak ez kontenplazteko. Gizarte demokratikoen ezaugarrietako bat, gutxiengoen eskubideak babestu eta gehiengoak hauek begirunerik gabe ezkutatu eta estutzen ekiditea da. Hau da, administrazioetatik luzatzen diren kopuruak egiazkoak direla jota ere, zergatik ez kontenplatu langile sexual izan nahi dituztenen eskubideak? Zergatik kontrajarri Salerosketa biktimen eskubideak euren buruak biktimatzen jotzen ez dituzten langileekin?

Guretzako nahitaezkoa da prostituzioan ari diren emakume guztien eskubideak defendatzea. Derrigortu eta hertsatuta daudenentzat: babes eta delituaren jazarpena: gaizki bizi dutenentzat: beste lan batean aritu ahal izateko formatzeko aukera eta lan sexualean aritzea erabakitzen dutenentzat: prostituzioa lan moduan onartzea, hirugarren pertsona batekin lan harremanak arautzea, langile moduan dituzten eskubideak haintzat hartzea eta euren lana baldintza hobean aritzeko, bezeroak kalean erakartzeko zonaldeen nagozioazioa.

Feminismotik beti defendatu dugu emakumeen erabakitzeko gaitasuna, eta zentzu honetan, nahitaezkoa da emakume talde ahulenei zuzendutako babes neurriak kontutan hartzea eta indartzea. Madril edo Bartzelonako udaletxeek aspaldi hartu zituzten kaleko prostituzioa debekatzeko neurriak eta honek prostituzioa utzi nahi ez duten emakumeek jazarpena eta erasoak jasan behar izatea ekarri du, baina baita dituzten eskubide oinarritzkoenak, hots, zirkulazioa askearen edo duintasunaren eskubidea ere sistematikoki zapalduak izan dira. Mugimendu feministaren sektore abolizionsitek txalotu dituzten politika hauek, erakusten dute praktikan, abolizionsimoa, politika kriminalizatzaile eta errepresiboekin nahasten dela.

Halaber, emakumea jazarri gabe prostituzioarekin amaitzeko bezeroak zigortzen dituzten politikek, bezeroa bera indartzeko balio dute. Lan baldintzak okertzen direnean, tratuak azkarrak eta erdi klandestinoak izan behar dira, eta ondorioz, prostitutak dira galtzaile bezeroekin dituzten negoziatioetan.

Bestalde, klubetan lan egin eta enpresarien baldintzak onartu behar dituzten emakume asko daude (deskantsurik gabeko 24 orduko lan ordutegia, bezeroa eta eskaintzen dituzten zerbitzu sexualak inposatzea, egiten duten lanaren gaineko ehuneko neurritz gainekoak...) bebestuko dituen inolako legerik gabe. Errealitate honen aurrean begiak ixtea eta lokal hauetako jabeek egiten duten gauza bakarra langile eta bezeroaren arteko kontaktuak errazten dituenaren falazia onartzeak, enpresarien gehiegikerien aurrean langileak babes gabe uztea du ondorio. Beharrezkoa litzateke prostituzio etxeetako langile eta enpresarien artean lan harremana dagoela onartzea, boluntarioki onartutako lan harremana, baina patronalaren inposketei mugak jarrita,

langileen lan eskubideak onartuaz. Kode penalak egiten duen moduan, enpresari hauek proxeneta moduan zigortzeak, gertatzen ari den esplotazio egoera ez ematea laguntzen du.

Modelo abolizionistaren eredu den Suedian, eta gure herrietako lege berriei esker ikusi den moduan, prostituizoarekin amaitu nahi duten politikek, lortzen duten gauza bakarra jarduera hau ezkutuan egitea dakar, honela prostituten ahulezia areagotuaz eta mafia eta txuloen jardunaren garapenaren areagotzea inolako zigorrik jasotzen ez dutelako, legezkoaren (prostituzioa boluntarioa ) eta delituzkoaren (hots, derrigortutako prostituzioa) arteko desberdintasun garbirik ez dagoelako. Azken honek, batez ere prostituzioaren alorrean ezartzen diren lege abolizionisten debekuen babesean, garatzeko erraztasuna ematen duen eremuak lortzen ditu.

Izan ere, prostituzioan lan egitea erabakitzen dutenek, kasu gehienetan, ezin dute zein baldintzetan egingo duten erabaki. Lan hau legalki ez errekonozitzen eta beste edozein langilek dituen eskubideak ukatzeak, prostituzio etxeetako enpresariak eragiten dieten lan esplotazioaren aurrean babesik gabe uzten ditu emakume hauek , baina baita botere publikoen gehiegikeria eta arbitrariotasunaren aurrean (bereziki udaletxeak, zeinak prostituten aurka heretikoen jazarpen gupidagabe moduan ari diren plan eta lege desberdinak medio)edo baita polizia funtzionarioen (Coslada) edo bizilagunen, edo prostituzioa dagoen auzoetan garbiketa kanpainak egin nahi dituen edozein hiritar "zintzo"ren aurrean ere.

Azken hilabeteotan ere euren zerbitzuak komunikabideetan eskaintzeko duten eskubideaz eztabaidan hasi dira. Azken aldian, komunikabideetako prostituzioaren iragarkiak debekatzea bilakatu da esplotazio sexuala helburu duten Salerosketan diharduten mafien aurkako instrumentu nagusi. Kontuan izanda prostituzioa ez dela delitua eta ezta legez kanpoko ekintza, honako galdera hau egiten diogu gure buruari. Zer dute iragarki hauek prostituzioaren inguruan sortu den polemikaren erdian egoteko?

Gure ustez, prostituzio iragarkiek, beste edozein zerbitzu eskaintzen duten iragarkien moduan, ez dute ezer txarrik. Aitzitik, gure espereintziari jarraiki, oso eraginkorrak dira libreki eta era autonomoan lan egin eta toki publikoetan ikusgai egon nahi ez duten sexu langileentzat bezeroak erakartzeko. Hauek debekatzeak prostituta hauek bezero bila kalera edota enpresarien inposaketan menpe egon beharko luketen klubetara joan behar izatea ekarriko luke. Egia da baita ere, debeku hauen eraginkortasuna eztabaidagarria dela-efektu idologikotik haratago-egun iragarkiak jartzen dituzten langile autonomo gehienek Internetera jotzen dutelako.

Debeku hau argudiatzeko arrazoi nagusia prostituzio behartuaren mafien aurkako borrokan onuragarria izango litzatekeela da. Baina, izan dezagun seriotasun minimo bat. Noiz ikusi dugu ekintza ilegal bat iragarrita? Benetan uste al dugu iragarkietako emakume guztiak Salerosketaren biktimak direla? Gure esperientziak hori horrela ez dela diosku. Salerosketa delitu larria da eta zigortua dagoenez, ilegaltasunean eta erdi-ezkutuan egiten da. Benetan hain publizitatua balego ez litzateke hain zaila izango ekintza horrekin akabatzea.

Eta, hala ez denez, iragakirak debekatzeak ez du eraginik Salerosketaren aurkako borrokan.

Borroka honi beste bide batzuetatik ekin behar zaio. Komunikabideak ezin dira arduratu iragartzen den horren atzean dagoen kontrola egiteaz. Horrela balitz, zabal dezagun iragarki mota guztietara, batez ere esklabutza erregimenean lan egitea behartuta dauden Asia ipar-ekialdeko haurrek ekoiztutako tejano eta zapatilak egiten dituzten markak. Salaketa horiek frogatuak izan dira. Prostituzio iragarkietako langile gehienak derrigortuta daudela esatea espekulazio hutsa da ez baitago hori horrela dela frogatzen duen daturik. Iragakirak debekatzea orokorrean prostituzio ororen aurkako neurria izatez gain, langileek euren zebitzua iragartzeko dituzten eskubideak urratzen dituzte.

### **Gure jarrera feministak: emakumeen aliantza deskriminazioaren eta “puta” kategoriaren subertsioaren aurka borrokatzeko**

Hetaira hasi genuenetik gure helburu nagusienetako bat diskriminazioen aurka lan egiteaz gain, sexu jokabidearekin loturik dagoen emakume “okerra” etiketa eta estigma zalantzan jartzea izan da. Beste hainbat elementuren artean estigma honek ez dielako solik putei eragiten baita nagusi den moralaren ikuspuntutik sexu jokabide “okerrak” agertzen dituzten emakumeei ere.

Lan sexualean ari diren emakumeek anbibalentzia handiarekin bizi dute euren jarduna eta askotan, euren bizitza pertsonala ekintza horretan aritzea inplikatzeko duen kontraesan pertsonal ugari dituzte. Gehienetan, emakumearen sexualitatearen inguruko ideia tradizionaletan hezitako emakumeak dira, eta eurentzat puta estigmak zeharkatu duten muga irudikatzen du. Honek emakume oker moduan sentitzea dakar eta ondorioz, batzutan euren lana lotsaz eta besteetan lanean autoafirmatu eta arrotasunez bizi dute, egoera ekonomiko nahiko ona eta independienteki aurrera atera ahal izaten lagundu dielako.

Anbibalentzia hau ez da kontutan hartzen eta orokorrean prostituzioaz aritzean alde llun eta biktimista erakusteko joera dago: kontrol soziala, errepresioa, babes eza, gehiegikeriak eta ahuldadea....baina profesionalki euren burua prostitutatzen azaltzen duten alde hauslea ezkututzen da. Eta, onartzea mingarria izan daitekeen arren, ezkutatzeko prozesu honetan prostitutak kausa feministaren traidore kontsideratzen dituen mugimendu feministak lan handia egin du.

Dena den, zailtasun hauek izanagatik eta sektore feministen laguntza eta babesari esker, sexu langileak 80.hamarkadan gay eta lesbianen mugimenduari jarraiki antolatzen hasi ziren.

Gure herrian prostitutak 1995ean hasi ziren antolatzen, lehenengo Madrilen Hetaira kolektiboan, eta hurrengo urteetan beste kolektibo batzuetan, Licit, Genera, Ambit Dona edo LLoc de la Dona Bartzelonan, CATS Murtzian, LGTB erakundearen barneko kolektiboetan edo Giza eskubideen aldeko taldeen barnean...publikoan puta kontsideratuak izateko beldurra eta lotsa

galduta, euren ahotsak ozendu eta euren kolektiboarentzako lan eta giza eskubideak aldarrikatu dituzte

Urte hauetan sexu langile direla esan duten sexu langileak gehituz joan dira eta aurre egin diete euren aurka instituzio eta bizilagunek eginiko lege hauste eta bidegabekeriei. Eta nahiz eta euren jarduera zertan datzan esateagatik presioa eta zailtasunak izan, geroz eta gehiago dira forma desberdintan euren jarduna zein den agertzen dutenak: kolektiboaren ordezkari moduan, beste batzuk manifestazioetan, ehunka prentsaurreko, elkarrizketatan euren babesa erakutsiaz zapi eta maskaren atzea ezkutatuta.

Urte hauetan prostituten irudia komunikabideetan duindu eta gizartean prostituzioaren inguruko eztabaida zabaldu egin da. Giza erakunde asko eta baita alderdi politikoak ere gai hauen inguruan eztabaidan hasi dira, gero eta haundiagoa da sexu langileen eskubideak defendatzearen aldeko sektore kopurua.

Mugimendu feministaren barnean ekintza hauek oso kontutan izan dituzte eta prostituzioaren inguruko iritziak polarizatu dituen eztabaida sortu da. Prostituzioa genero indarkeria dela eta beraz, bezero eta proxenetak zigortuta errotik atera edo abolitzea dioen jarreraren aurrean, euren eskubideen aitorpena bultzatzen duen korrante berria sortu da. Honela, 2.006ko martxoan sare feminista berri bat eman zen ezagutzera, Otras Voces Feministas izeneko iritzi korrantea eta 2.006ko urrian Madrilen ospaturiko lehen topaketan, prostituten eskubideen alde bere babesa eman eta zentzu berdinean konklusio batzuk onartu ziren.

Emakumearen duintasunaren defentsa, edozein egoera konkreturen gainetik feministek egindako aldarrikapen nagusietako bat izan da. Zentzu honetan, askotan emakumeen aldeko sektore batzuetatik, prostituzioa duintasunaren aurkakoa dela kontsideratzea “emakumea gorputz izatera murrizten duelako, gizonezkoen erabilpen eta gozamenerako objektu...” prostituta statusak prostituzioan aritzen diren emakumeei espezifiki gizakiarenak diren ezaugarriak kentzen diela...”, sexu langileek duten subjektibitatea eta ondorioz, duten “humanitatea” zalantzan jartzea da.

Pertsonen duintasuna egiten duten lanaren gainetik dago, lan hau edozeina delarik. Gauza bat da esatea kasu askotan prostituzioan aritzeko dauden baldintzak ez direla duinak eta beste bat oso desberdina esatea jarduera hori duintasunik gabekoa dela. Gauza bat da eurak estigmaren barneratzea dela eta duintasun gabe sentitzea (gauza bera gerta daiteke lesbiana edota transexualekin) eta beste gauza bat feminismotik hori hala dela baieztatzea. Nire ikuspuntutik jarrera hauek lortzen duten gauza bakarra estigma indartzea eta autoestima zauritua txikitzea da, indarrean dagoen ideología patriarkalak egiten duen prostituten objektualizazioa indartuz.

Proposamen feministek emakumeen erabaki askatasun eta autonomia aukerak haunditzen lagundu behar dute. Prostituta guztiak, prostituzioan aritzea behartuta daudela kontsideratzeak sortzen duen biktimizazioak ez dirudi estrategia feminista zuzena, biktimizazio honek ez duelako laguntzen bizi



dituzten egoera desberdinak aldatzen laguntzen. Pertsona guztiok, baita egoera beldurgarri eta dramatikoenetan ere, badugu aurrera egiteko eta dugun egoera aldatzeko nolabaiteko gaitasuna eta emakumezko guztiok dugun gaitasun hau izan da feministok gure diskurtsoetan aipatu duguna. Horregatik da garrantzitsua emakumeek hartzen dituzten erabakiak entzutea eta errespetatzea, euren borondatearen aurka estatu babesa behar duten adin txikikotzat jo beharrean. Babesa beharrezkoa duten kasuetan ere, ezin dugu alde batera utzi euren autonomia eta erabakitzeko gaitasuna handitzea.

Gure mugimendu feminista gizarte, familia laguntza behar genuen adin txikikotzat jotzen gintuen lege babesle faltsu frankisten aurka jaiotzen zen. Prostituzioan aritzea erabakitzea, emakume sektore batentzat, emakumeen lanpostuak okerrago ordainduta eta euren lanak lan merkatuko informalek diren lan batzuetan baino diru sarrera gehiago lortzea eta independetzia ekonomiko handiagoa lortzea da. Hobeto bizi nahi izatea, inori minik eman gabe legitimoa da eta ondorioz, beharrezkoa zerbitzu sexualaren eskaintza legeztazea bizi modu moduan, lan moduan.

Emakume prostitutekin lan egiteak eta ezagutzak erakutsi digu nola eman diezaioketen buelta eta ematen dioten, euren lanean topatzen dituzten subordinazio egoerei. Eta hau, neurri handi batean mugitzen diren baldintza subjektibo (autoafirmazio, euren buruarekiko segurtasuna, profesionaltasuna) edo objektibo araberakoa da. Honela, adibidez, lan giro lasaiean aritzeak ematen die prezioak eta zerbitzu sexualak hobe negoziatzeko aukera eta bezeroaren aurrean boterea dutela sentitzea; langileak direla onartzeak profesional bilakatzeko aukera ematen die eta argiago izateko zein zerbitzu sexual eskaini nahi duten, nori eta zein baldintzetan.

“Putza” kategoriaren esanahia iraultzea, dituen eduki patriarkalak kenduaz- desio propiorik gabeko emakume “okerrak”, gizonetzkeon desio sexualen zerbitzurako objektu-eta aldarrikatzean sexu langileek duten autoafirmazioa, autonomia eta askatasuna afirmazio feministaren lehen mailako ekintza da.

Baina modu kontsekuentean egin ahal izateko beharrezkoa da unilateraltasun alde batera utzi eta ikuspegi zabalagoa izan, errealitatea zehazten bateratzen diren kausa edo arazoen ikuspuntu feminista integratzailea. Beharrezkoa da fundamentalismo idologikoetatik eta abstrakzio haundietatik aldentzea ideala ez den mundu honetan aurrera atera eta autoafirmatzeko emakume sektore honek erabiltzen dituen estrategia zehatzak ikusi eta bebesteko. Beharrezkoa da baita ere emakumezkoek gertatzen zaizkien gauza desatsegin guztiak gizonen gaiztakeria eta euren sexualitatearekin zerikusia dutela dioten binomioarekin haustea.

Azken urteotan sexu langileek hitza hartu dute eta argi eta garbi hasi dira esaten duintasunez tratatuak izan nahi dutela, euren lana egiteagatik estigmatizatuak izan gabe; ez dute diskriminatuak izan nahi, gainontzeko langileek dituzten eskubide berberak nahi dituzte, toki lasai eta seguruetan kalean lan egin nahi dute, trabarik gabe. Euren ahotsa ezin da denbora gehiagorik entzun gabe utzi. Gobernu zentrala, tokiko administrazioa,

komiunikabideak eta gizarteak bere osotasunean euren aldarrikapenak kontutan hartu behar dituzte, izan ere gurea moduko gizarte demokratiko batek ezin du utzi alde batera delitu bakarra emakumearen sexualitatea oraindik zuzenduten duten mandatu patriarkalak urratzen dituen pertsona.